

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Udal aurrekontuko kreditua aldatzeko 1/2025 espediente

Udalbatzak, 2025eko maiatzaren 29ko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespenera ematea kredituak aldatzeko 1/2025 espedienteari. Kreditu hori gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kontura finantzatuko da.

Espedientearen hasierako onespenera jendaurrean egoteko epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtu da, bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko toki erakundearen aurrekontuaren otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatzen duenarekin.

Otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15.3 artikuluan jasotakoa betez, osorik argitaratzen da kreditua gehitzeko 1/2025 espedientearen xedapen zatia, aurrekontu aplikazio hauei dagozkien gastuak aintzatesteko:

Altak gastu aplikazioetan

GASTUEN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
459.601004	LANDA BIDEAK	25.000,00
920.622023	EGUZKI PLAKEN FORU PLANA	10.000,00
342.601001	IGERILEKUAK HOBETZEA FORU PLANA	85.000,00
330.680001	LURZATIA EROSTEA NEXT FUNTSAK	40.000,00
338.226006	JARDUNALDI OLEOKULTURALA ETA ARDOEI BURUZKO JARDUNALDIA	7.000,00
GUZTIRA		167.000,00

Aldaketa hori ondoren zerrendatzen diren partidekin finantzatuko da, eta hala, espedientearen parekatuta eta defizitik gabe aurkezten da:

Altak diru sarreraren aplikazioetan

DIRU SARREREN APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	82.000,00
93201	FINANTZAKETAKO FORU LERROA	85.000,00
GUZTIRA		167.000,00

2025ko ekitaldirako udal aurrekontuko kreditu aldaketaren espedientearen behin betiko onespenera erabakiaren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabete izango dituzte, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lantziego, 2025eko ekainaren 24a

Alkate-lehendakaria

ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA